

Fedea bear dugu

Alderdi, 264. zk., 1971-06.

Ez gera orain erlijioari dagokion fedeez ari, gizonok tellatupeko ontan duen etorkizunari dagokion fedeez baizik.

Lege-gizon eta filosofo ospetsu den Luis Recaséns-Sichesek zioenez: "Gizonaren gaitasuna eta berak dituen oiñarriko askatasunak garrantzi aundiegia dute oraingo Estaduen eskuetan usteko".

Eta egia da.

Gaur munduak duen auzirik negargarriena ez da, ez, bear bezelako legerik ez izatea (geiegi ere ba ditu gaurko gizonak), baizik, mundu osoan egitaz gizonari justizia egingo dion edo egin-araziko dion erakunde bat sortzea baizik. Estatu gehienak, eta Españaiek ere bai, izenpetu dituzte *Gizonen eskubideak*. Elizak ere dokumentu ederrak atera ditu (*Pakea lurrean*, esate baterako), eta or daude ofizialki katoliko aitortzen diren estaduak ekintzaz bere bizkar parrez.

Nola ikusi genezake Euzkadirentzat erri-legez datorkion etorkizuna?

Euzkadik ixtori aldetik berjabetasunerako duen eskubidea ez dago asko defenditu bearrik, agirian dago-ta; erriaren gogoz ere ez: bai azkatasunean botoz eta gudara bultza zutenean izkirluz ere bere itza esan du-ta bein baiño geiagotan; kulturaz ere ez dago zer esan bear aundirik, Euzkadik duan nortasuna ezaguna da-ta.

Batzuk diotenez, ez omen da gaur *sakabanatzeko* eguna, *batetzekoa* baiño.

Ederki; baiño batu, nola?

Bai, batzeko eguna da, baiña *justizian*, noski; pakearen eguna da, baiña *askatasunean*, noski; maitasunaren eguna da, baiña *elkarren arteko konfiantzan*, noski. Batasuna justizian eta maitasunez lortzen bada, ainbat eta obe, baiña batasun ori indarrez eta arma-bidez eta doillarkeriz egiten bada, ez da ez gizonaren eta ez Jainkoaren bidea.

Eta egunik ospatu bear badugu gaur mundu berrian, *justizia-eguna* ospatu bear dugu.

Gaur justizi egunera goaztila ikustea ez da zailla.

Batasun utsaren eguna bada, zergatik ari da aspaldi ontan mundua orrenbeste erri berriei askatasuna ematen? Eta *erri aundien eta elkartuen* eguna bada, zergatik ari dira erri txikiak aundietatik askatzen?

Ara emen Erri-Elkartuak edo Naciones Unidasen babesean azkeneko urte oietan askatasuna lortu duten erri txiki batzuk.

<i>Erria</i>	<i>Askatasun-urtea</i>	<i>Biztanleak</i>
Alta Volta	1960	2.019.000
Bahareim	1942	200.000
Barbados	1966	253.000

Bostwana	1966	611.000
Burundi	1962	3.406.000
Camerún	1960	5.662.000
Rep. Centroatricana	1960	1.488.000
Rep. Congo	1960	1.000.000
Costa de Marfil	1960	4.100.000
Chad	1960	3.460.000
Chipre	1960	622.000
Dahomey	1960	2.571.000
Gabon	1960	480.000
Gambia	1965	350.000
Guinea Ecuatorial	1968	281.000
Jamaica	1962	1.913.000
Kenia	1963	10.209.000
Koweit	1961	540.000
Losotho	1966	910.000
Madagascar	1960	6.500.000
Malawi	1964	4.250.000
Maldivas	1965	106.000
Malta	1964	322.000
Mauricio	1968	787.000
Mauritania	1960	1.120.000
Niger	1960	3.363.000
Ruanda	1962	3.405.000
Senegal	1959	3.685.000
Sierra Leona	1961	2.475.000
Singapur	1965	1.988.000
Somalia	1960	2.745.000
Suazilandia	1968	395.000
Togo	1960	1.772.000
Trinidad y Tobago	1962	1.038.000
Zambia	1964	4.000.000

Oiek eta geiago ere badira, azken urte oietean, naiz eta txikiak izan, naiz eta elkartasun giroan bizi, justiziaren laguntza izan dutenak.

Eta ba dira erri txikiak izan arren aspalditik Europa eta Amerika eta Asian bertan bizi diran erriak ere:

Panamá.....	1.372.000	biztanle
Nicaragua.....	1.842.000	
Guyana	710.000	
Paraguay.....	2.231.000	
Uruguay.....	2.818.000	
Surinam.....	375.000	

Albania	2.019.000
Andorra.....	18.000
Irlanda	2.910.000
Islandia	200.000
Liechtenstein.....	21.000
Luxenburgo.....	336.000
Malta.....	319.000
Monaco.....	23.000
San Marino	18.000
Chipre.....	622.000
Israel	2.745.000
Jordania	2.145.000
Koweit.....	540.000
Laos.....	2.825.000
Libano.....	2.580.000

Ez da, ba, erri *aundien* eta *batasunaren* (nolanaiko batasunaren!) garaia dela esatea egi osoa.

Egi osoa dena da *Justizia egiteko eguna eldu dela*.

Aurrena gizonen eta erriek kultura eta ekonomia eta sozial justizia egin bear zaio, eta ontara dijoa mundua. Justizi onek gizon eta erri-kidetasunak askatasunean ekarri bear ditu eta ekarriko ditu.

Guk justizi onegan fede oso-oso dugu, baldin eta guk, Euzkadiko gizon-emakumeak, gurea zer den eta zertarako bear dugun garaiz ikasi eta egin bear duguna egiten badugu.